

B

BARREN

TOKIKOM

Eskaladaren gailurrean

Alberto Fernandez



Martxoak 3 larunbata Elgoibarko EGIren aurkezpena

- ◆ 12:00etan Batzokian, JOSEBA EGIBAR eta MARKEL OLANO
- ◆ Trikipoteoa
- ◆ Bazkaria, Sigma jatetxean



LAGUNAK KOLTZOI DENDA-TEXTIL HOGAR

PROBATZEKO

60
GAU!

Edozein
TEMPUR koltzoieta
(neurrira egindakoak
izan ezik)



Berria!

Etxeko laguntzan adituak



San Roke kalea, 20 - Tel.: 943 744 457 - ELGOIBAR - www.textillagunak.com



Mediobanca

OLDSAN

terxy

Oihana
Ohe geriatrikoez

KEYTON®
Masajedun besakizkiak



Haizea, zerbait bada, librea da

Urtean behin baino ez da izaten martxoaren 8a. Egun bakarra, munduari haizea bezain libre izan nahi dugula gogorarazteko. Egun horretan denok batera egiten dugu putz, eta une baten mundua mugitu egiten dela dirudi. Baina pisua da mundu zaharra, karga astuna du patriarkatuak egun bateko urakanak mugitu dezan. Horregatik segitzen dugu batzuk hegotik eta besteek iparretik, orain leun orain indartsu, gonak dantzatzuz, ileak nahasiz, olatuak harrotuz, bazterrak nahastuz, putz eta putz, mundu zahar hau mugitzea lortuko dugun arte.

Urte asko daramatzagu borrokan: egin ditugu pankartak, igo ditugu mendiak, egin dugu oihu eta irrintzi, elkarrekin jan, edan, pentsatu, aldarrikatu eta dantzatu dugu. Gustatzen zaigun guztiaren alde mugitu gara. Dantzan egin dugu iraultza. Taldean. Eskuz-esku. Birikaz birika. Emakumeok. Joan dira urteak, zimurtu zaigu azala, baina hemen gaude, eta Haizea gara.

Eta haizea, zerbait bada, librea da.

Emakume askearen dekalogoak

- Emakumea izatea desabantaila barik pribilegioa dela onartuko duzu.
- Bizitzeko jarrera bat hartu eta babestuko duzu.
- Zuk zeuk hartuko dituzu erabakiak, eta ez zara aurreiritzietan jausiko.
- Ez duzu baimenik eskatuko, akordioak bilatuko dituzu.
- Ulertuko duzu desberdinak direla batzuetan amore ematea eta

emakume izatearren dena ametitzea.

- Samurtasuna eta goxotasuna ez dituzu menpekotasunarekin eta sakrifizioarekin nahastuko.
- Duina zarela onartuko duzu eta ez duzu utziko gizon baten indiferentziak zu umiliatzerik.
- Errudun sentitu gabe plazera sentitze hutsagatik egingo duzu larrutan.
- Seme-alabak izango dituzu nahi duzulako bakarrik eta ez emakume izateko ama izan beharra duzulako.
- Lortu nahi duzun hori argia zarelako lortuko duzu eta ez zure erakargaritasun femeninoa erabilita.
- Inor ez da nor zuri une txar bat pasazazteko.

Pili Martinez eta
Izaskun Estibariz



"Nire txanda" atalean idatzi nahi baduzu, jarri zaitetz gurekin harremanetan: 943 744 112 edo barren@elgoibarkoizarra.com

“Pisua da mundu zaharra, karga astuna du patriarkatuak egun bateko urakanak mugitu dezan”

IZUGARRIZKO
ESKAINTZAK



**Zanussi
INDUKZIOZKO PLAKA**

ZIT 649 BV

369€



**Dekorazio kanpai
HERDOILEZINA**

TEKA-CMB 160

109€



**LG-32LV3400
TELEBISTA**

Full-HD-LED-100HZ - USB

399€

2012/03/22ra arte balio du, akats tipografikoak egon ezan edo produktuen amariara arte

MILAR

BIRE

Ubitarte 11
 943 741 487
 bire@milars.es

Barren

Nafarroa plaza, 2 • 20870 ELGOIBAR

☎ 943 744 112

E-posta: barren@elgoibarkoizarra.com

Publizitatea: ☎ 943 744 112

E-posta: barren.publi@elgoibarkoizarra.com

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. **BARREN**ek ez du bere gain hartzen **NIRE TXANDA, ZOZOAK BELEARI** eta **ESKUTITZAK** ataletan adierazitako enrantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi
KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Ainhoa Mendibil
HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia
PUBLIZITATEA Leire Rubio
MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz
MAKETAREN DISEINUA Jaione Unanue
KOLABORATZAILEAK Iñigo Lazkano, Anjel Bazterretxea, Andres Alberdi, Angel Ugarteburu, Justo Arriola, Arkaitz Irureta, Zuhaitz Gurrutxaga, Unai Arrieta, Noemi Otegi, Ainara Sedano, Jesus Mari Makazaga, Jairo Berbel, Joanes Rodriguez, Maialen Arnedo, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lariz, Jose Luis Azpillaga, Amaia Larrañaga
INPRIMATEGIA Gertu Koop. E. **TIRADA** 4.800 ale
LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1139-1855

Argitaratzailea:



Laguntzaileak:




EL GOBIERNO LESLEA



MENDAKO UDALA



ELGOIBAR



GUTUNAK



BARRENek ez du bere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako enrantzukizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dira. Ez ahaztu **izen-abizenak, NAN** eta **telefonoa** jartzea. Bidali helbide honetara: barren@elgoibarkoizarra.com.

Mendaroko ospitalari

Orain egun gutxi jaio zen gure alabatxoa Mendaroko ospitalean, eta lerro hauen bidez, eskerrak eman nahi dizkiegu han lan egiten duten profesional guztiei, eta bereziki Iratxe Ocerin ginekologoari, egindako lan bikainarengatik. Zorionak, eta jarraitu horrela.

Amaia Plaza, senarra eta alaba ☺

Pala txapelketa

Jada pasa dira pare bat hilabete Gabonetatik, eta batzuek konturatuko zineten ez dela pala txapelketarik izan azkeneko Gabon hauetan.

Ikastolako frontoiko orduak debalde izan daitezten, kirol elkarte baten eskaera exijitzen du Udalak. Joan zen urtean kirol elkarte baten laguntza izan genuen, eta, aurrean, arrazoi desberdinak direla medio, ez dugu laguntza hori lortu. Ondorioz, Udalak ikastolako frontoiaren doako erabilera ukatu digu.

Hori dela eta, barkamena eskatu lehengo urtean izena eman zuten hogeitaz bi eta oraingoan izena emateko asmoa zuten horiei.

Jakin 10 bai taldeak bere horretan jarraitzen duela eta hemendik gutxira Plaza Handiko hirugarren binakako pilota txapelketa antolatzeko asmoa duela eta, aurrean ere, nesken pala txapelketa antolatze lanetan dabilela.

10bai ☺

Parekidetasunera bidean... Feminismoa!

Datorren astean, martxoaren 8an, Emakumeon Nazioarteko Eguna ospatuko dugu, baina ospatzeko ez ezik aldarrikapenerako eguna ere bada guretzako martxoaren 8a. Urte askoan jasandako zapalkuntzaren gainetik gaur egungo egoerara iritsi izana ospatu behar dugu dudarik gabe, baina horrekin batera oraindik orain egiteko daukagun guztiari erreparatu behar diogu. Ez du balio martxoaren 8a bezalako egunak gizartearen parekidetasun faltsu baten itxura emateko erabiltzeak.

Urte askotako jardunak egoera hobetu duen arren, gizarte patriarkalak emakumea zanpatzen jarraitzen du: lan esparruan, esparru politikoan, etxean, kalean edo eta harre-

man pertsonal-afektiboetan. Sistema patriarkalak gizon eta emakumeon artean sortzen dituen aldeak nabarmenak dira oso, eta geu gara gero desberdintasun horiek erreproduzitu eta bermatzen ditugunak. Hori amaitu beharra dago.

Kalera irten eta nahikoa da esateko momentua iritsi zitzagun aspaldi. Alarma gorriak piztu beharrean gaude. Jo alarma lanean amatasun baimena eskatzearen beldurretan dabilenarengatik; jo alarma egunero bere etxean tratatu txarrak jasaten dituen emakumearengatik, jo alarma kontuan hartzen ez duten emakumearengatik, jo alarma atzo bere senarrak hil zuenarengatik, jo alarma bortxatu dituzten guztiengatik, mespretxatu duten lesbianarengatik, atxilotu duten prostitutaengatik, lan-baldintza eskaseta diharduen etxegarbitzailearengatik... Jo alarma eta ez geratu horrelako egoerak desagerrarazten ez ditugun bitartean. Badaukagu tresna: feminismoa. Irtenbidea geu gara.

Batu gaituzten plazan datorren egunean indarrak batu, alarmak jo eta aurrera jarraitzeko. Gonbidatuta zaudete guztiok.

Haizea eta Elgoibarko Emakumeon Asanblada ☺



Jose Luis Azpillaga

Gai potolo samarrarekin natorkizu oraingoan, Amaia. Joan den astean, otsailaren 21ean, Ama Hizkuntzen Nazioarteko Eguna izan zen. Itxura denez, Bangladeshen, bengalaren aldeko mugimendu indartsua izan zen 50eko hamarkadan. Garai hartan, Bangladesh Pakistanen mende zegoen, eta bengalera ez zen ofiziala.



Amaia Larrañaga

Egoera aldatu nahian, unibertsitateko ikasleak mobilizatu eta poliziari aurre egiten saiatu ziren. Zoritxarrez, egoera okertu eta bi ikasle hil ziren 1952ko otsailaren 21ean. Hainbat urte eman zituzten mugimenduko jarraitzaileek bengalaren alde borrokan, eta, azkenik, 1956an, gobernua amore eman eta bengalera ere hizkuntza ofizial bihurtu zen. Gertakari haiek gogoan hartuz, Unescok otsailaren 21a Ama Hizkuntzen Nazioarteko eguna izendatu zuen, hizkuntza- eta kultura- aniztasuna bultzatzeko asmoz.

“Zer diozu, Amaia? Zergatik da onuragarria hizkuntza-aniztasuna?”

Ospakizun horrek azkenaldian han eta hemen irakurri eta entzundako eztabaida berritu dit. Hain zuzen, otsailaren 12ko *Argia* aldizkarian honako galdera egiten zuen David Anaut euskara-technikariak, ariketa gisa: “Zergatik da onuragarria hizkuntza-aniztasuna?”. Daviden esanetan, errazegi, askorik hausnartu gabe, onartzen ditugu hainbat ideia; baina horien defentsa egitea tokatzen zaigunean, nondik jo ez dakigula gelditzen omen gara.

Batzuen iritziz, mundu globalizatu honetan, hizkuntza bakarra izanda, hobeto ulertuko omen genioke elkarriz: “mundu bat, hizkuntza bat” aldarrikatzen dute. Europako parlamentuan 23 hizkuntza ofizial daude, eta horrek diru-gastu handia omen dakar itzulpenetan. ARGIA aldizkariaren ale berean, Jaione Agirre Europako Parlamentuko interpreteak hau zioen: “Zabaltzen ari den iritzia da hizkuntza aniztasuna ez dela batere pragmatikoa”. Nor bere hizkuntzan berba egin beharrean, praktikoagoa omen litzateke, zenbaiten iritziz, ingelesez jardutea eta kito. Zer diozu, Amaia? Zergatik da onuragarria hizkuntza-aniztasuna?

Azken aldian, zorioneko edo txarreko, “krisi” hitza munduaren jabe egin da, hobeto esateko eta inolako ezagutzarik izan gabe, nik neuk behintzat, hitz hori mugitzen dutenak egin direlakoan nago. Ez dago arlorik krisiak eraginik ez duenik, ala bai? Horren lekuko, zuk diozun moduan J.Luis, Europako parlamentuan 23 hizkuntza izateak omen dakarren gastua itzulpenetan.

Zergatik ez ote digute esaten zenbateko gastua dakarren, dena delako erakundeetan, erabakiak hartzen dituztenek, eguna joan eta eguna etorri, txofer, dieta, prentsaurreko-gosari eta enparaueetan xahutzen dutenak?

“Hizkuntzetan inbertitzeari aberastasuna deritzot”

Gustura asko jakingo nuke honetan eta hizkuntza konfuetan gastatzen denaren arteko aldea zein den, eta bigarrrena balitz nagusi, poz ederra hartuko nuke, izan ere, hizkuntzetan inbertitzeari aberastasuna deritzot.

Halaber, gustura entzungo nituzke 23 hizkuntza horietatik, elkar ulertzearen, pragmatismoaren eta diru-aurreztearen izenean, hizkuntza bakar hori aukeratzeko orduan agintariak emango litzatekeen arrazoiak. Batzuen jarrerak ezagututa, gozoak jarriko liratekeela uste dut, euren aukeratu ezean. Zer dela-eta zuena bai eta gurea ez? Nik ere hauxe bera diot, baina aukeratu beharrik gabe, eta aberastasun mota hau, alegia, hizkuntzetan inbertitzea, ekonomikoa ez den bezalaxe, zoritxarrez, denon ondasuna izan dadin.

Jarri ezazu zure publizitatea

barren.publi@elgoibarkoizarra.com

B

BARREN
astekarian
943 744 112





MARIA MAGUREGI

“Melbourne oso hiri garbia da, lorategiak daude bazter guztietan, eta, gainera, jendea oso jatorra da”



Elgoibartarra da Maria Maguregi, baina Australian bizitzera ohitu da dagoeneko. Lau urte daramatza Melbourne hirian bizitzen eta gustura dago. Bikotea du australiarra, eta horrek eraman zuen munduaren beste puntara. Etxeko-en eta Elgoibarren falta nabari duen arren, oraindik ere denboratxo batean han geratzeko asmoa dauka Mariak, eta ez zaio gainera gehiegi kostatzen Australiaren eta Melbournen alde onen inguruan jardutea.

AINHOA MENDIBIL ARTETXE

Melbournen (Australia) bizi zara Maria. Nolatan?

Orain dela sei urte Londresen nengoela ezagutu nuen nire mutil-laguna. Bera Melbournen jaiotakoa da, eta bere lana zela eta hona etorri ginen bizitzera denbora baterako.

Erraza izan da Australian bizitzera ohitzea?

Ez zen hain erraza izan, batez ere hasieran. Unibertsitatetik atera berri nintzen eta ez neukan lan esperientziarik. Turismoa ikasi nuenez hotel batean hasi nintzen la-

nean, baina nire ingelesa ez zen gaur egun dena, eta arazo pila bat izaten nituen bezeroei ulertzeko. Telefonoz erreserbak egiterakoan bezeroa ulertzen ez banuen kobertura txarra zegoela esaten nion eta moztu egiten nuen.

Zenbat denbora daramazu hor?

Lau urte daramatzat hemen; oso azkar pasa da denbora!

Ezagutzen ez duenarentzat, azalduko diguzu nolako den Melbourne?

Australiako bigarren hiririk populatuena da, lau milioi pertsona inguru bizi dira hiri honetan, etnia eta kultura desberdinetakoak. Melbourne Australiako kirol eta kultur hiriburua da; joan zen urtean bizitzeko munduko hiririk onena izateagatik nabarmendu zuten, eta, egia esan, hemen oso ondo bizi gara. Asteburuetan edozer egiteko aukera pila bat daude: kontzertuak, jaialdiak eta mota guztietako ekitaldiak antolatzen dituzte. Horrez gain, oso hiri garbia da, lorategiak daude bazter guztietan, eta, gainera, jendea oso jatorra da. Eguraldia da eragozpen bakarra: oso aldakorra da; goizean hotza, eguerdi aldean demaseko beroa, arratsaldean izugarrizko zaparrada, eta berriz ere, zerua garbi! Lau urtaroak egun batean.

Melbourne handia da; zu non bizi zara zehazki?

Hiri erdigunean bizi gara apartamentu batean. Kokagunea ona da behar duan guztia urrats batera daukadalako.

Eta zertan diharduzu?

Lanean eta ikasten ari naiz.

Interiorismoko enpresa batean kontabilitatea eta administrazioaz arduratzen naiz, eta astean hiru aldiz arratsaldetan argazkilaritza eta mediari buruzko diplomatura bat ikasten ari naiz.

Nolako da zure egun bat?

Bederatziak aldera esnatu eta hamarretan hasten naiz lanean. Bulegoa etxetik bost minutura izan arren, beti berandu iristen naiz! Ordubiak aldean ordu erdi bat hartzen dut zeozer bazkaltzeko, eta seiretan bukatzen dut lana. Arratsaldez klase-rik ez dudanean, eguraldi ona eginez gero, hondartza aldera joaten gara trago bat hartu edo afaltzera eta txakurra paseatzeko.



Zein dira Elgoibar eta Melbourneren arteko desberdintasun esanguratsuenak?

Desberdintasun nabarmenetako bat Melbourne distantziak oso luzeak direla da.

Hiriko erdigunetik gertu bizi ez bazara autoa behar duzu derrigorrez. Bestela egun erdia pasa dezakezu trenean joan-etorrian. Elgoibarren, berriz, herri txiki bat denez, ez dago horrelako eragozpenik.

Zeren falta nabari duzu?

Ospakizun eta une garrantzitsuenak etxekoekin partekatu ahal izatearen falta nabari dut batez ere; pena handia ematen dit. Urtean bi aldiz joaten naiz Elgoibarrera bisitan, baina joaten naizen bakoitzean oso azkar pasatzen da denbora, eta konturatu orduko Australiara itzultzeko eguna iristen da. Australia gertuago balego errazagoa litzateke.

Eta zertara ohitu zara segituan?

Berezi xamarra izan naiz beti jatekoarekin, baina Australiara etorri naizenetik denetik jatera ohitu naiz. Kultura askotako sukaldaritza batzen da hemen, denetari-ko jateak daude. Orain dela gutxi pare bat lagunek Euskal Herriko pintxoetan tankerako taberna bat ireki dute, eta ez dakit zer dela-eta, baina "Naked for Satan" [Biluzik satanengatik] izena jarri diote tabernari.

Hemen horren ezagun egin den krisia igartzen da Australian?

Australian langabezi maila 5%ekoa besterik ez da. Europako merkatuen mende dauden enpresek ziur nabaritu dutela krisia, baina orokorrean Australian lan egin nahi duenak lan egiteko aukera dauka.

Berriz Elgoibarrera bizitzera itzultzeko asmorik bai, ala ez?

Itzultzea gustatuko litzaidake lau bat urte barru, eta ordurako espero dut European ekonomia suspertzea.

“Australiara etorri naizenetik denetik jatera ohitu naiz”



Elgoibarko leku-izenen mapa aurkeztu eta banatu du Udalak

Maparekin batera toponimiari buruzko 1.000 liburuxka ere kaleratu ditu Udalak

Gotzon Garate beka tarteko egin duten mapa toponimikoa aurkeztu zuten atzo Elgoibarko Udaleko arduradunek Kultur Etxean egindako jende aurreko aurkezpenean. Ikerketa toponimikoan 2.300 izen jaso dituzte guztira, baina 800 leku-izeneko mapa osatu dute azkenean, izen denak mapan sartzea ezinezkoa egin zaielako, arduradunen esanetan.

Eusko Jaurlaritzaren laguntzarekin maparen 3.500 ale argitaratu ditu Elgoibarko Udalak herriko eskola, elkarte, baserri eta gainerakoetan banatzeko, baina herritarren batek mapa horren aleren bat nahiko balu Euskara Sailaren bulegoan eska dezake. Mapez gain, toponimiari buruzko eskuliburu txiki bat ere banatu zuten atzoko aurkezpena gerturatutakoaren artean. Toponimiari buruzko azalpenak eskaintzen ditu liburuxka horrek: nola hartzen diren leku-izenak aldatzeko erabakiak, nola egin



den ikerketa bera edo eta zer den toponimia. Horrez gain, dagoeneko aldatetako eginda, Elgoibarko leku-izen guztien zerrenda ere jasotzen du liburuxkak.

Leku zaharrei izen berriak

Leku-izen ugari aldatu dituzte iker-

keta amaitzearekin batera. Kaleen izenak, baserrienak, zubi edo plazenak aldatu dituzte, besteak beste. Tartean, orain artean Plaza Handia edo Foruen Plaza zena Kalegoen Plaza izango da hemendik aurrera, eta Nafarroa Plaza, berriz, Kalebarren Plaza deituko da aurrerantzean.

Herri Eskolako obrak 2013 eta 2014 bitartean egingo dituztela adierazi du Isabel Celaa Hezkuntza sailburuak



Herri Eskolako obrak datorren ikasturtean egingo dituztela jakinarazi du Isabel Celaa Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza sailburuak Garbiñe Mendizabal legebiltzarkide jeltzaleak egindako galderei erantzunez.

Gaur egun modulu prefabrikatuetan jasotzen dituzte klaseak Herri Eskolako hainbat umek, eta Herri Eskolako guraso eta arduradunek aspaldi eskatu zuten egoera hori aldatzeko. Oraingoan, baina, eskari horri dagozkion galderak eraman dituzte legebiltzarrera hainbat talde politikok. Hala, orain aste bi, PPko zinegotzi Javier Nuñezek obrei buruzko galderak legebiltzarrera bideratu zituela jakin genuan, eta, orain, EAJk Hezkuntza sailburuari egindako galderen berri izan dugu.

2013 eta 2014

Isabel Celaa Hezkuntza sailburuak Mendizabali erantzundakoaren arabera, obrak 2013an hasi eta 2014an bukatuko dira, eta horretarako, arkitektoak otsailaren bukararako proiektua aurkezteko konpromisoa hartu zuela zehazten du Celaak Mendizabali idatziz helarazitako erantzunean.

Aldarrikapena **Emakumeen Nazioarteko Eguna**



Haizea emakume taldeak eta Elgoibarko Emakumeen Asanbladak hilaren 8rako biek batera antolatu duten elkarretaratzera deitu dute. 20:00etan izango da elkarretaratzera, Plaza Handian. Horren harira, antolatzaileek adierazi dute orain artean emakumeen eskubi-deen alde lortutakoa ospatzeko ez ezik, egungo egoera salatzen ere baliatu nahi dutela Emakumeen Nazioarteko Eguna.

Pertsonaia **Esteban Antxustegi**

Gipuzkoako Foru Aldundiak Lehendakari Agirre saria eman dio filosofian doktore den Esteban Antxustegi elgoibartarrari. *Aktualitatea eta filosofia politikoaren erronkak* izeneko lanarengatik saritu du Diputazioak Antxustegi, Euskal Herriko Unibertsitateko Filosofia fakultateko irakaslea, eta urte askoan zientzia politikoen esparruan egindako lanarengatik ere nabarmendu dute elgoibartarra.



Lekua **Urruzunoko babes ofizialeko etxeak**



Urruzunoko babes ofizialeko etxeak egiteko obrak bukatuta daudela jakinarazi du Udalak kaleratu berri duen aldizkarian, eta laster hasiko dira jabeak etxeetan sartzen. Jaurlaritzako Etxebizitzako Saileko iturriek jakinarazi dutenez, guztira 71 etxe egin ditu Galdiano enpresa eraikitzaileak eta horietatik 68 banatu dituzte dagoeneko, jabeek beharrezko diren papalak sinatu ostean.

Pako Aristi idazlea **Herri Eskolan**

Herri Eskolako seigarren mailako ikasleek Pako Aristi idazlearen (Urrestilla, Azpeitia, 1963) bisita jaso zuten. *Zazpi pirata baltsa* batean liburua irakurri dute ikasleek, eta horren harira gonbidatu dute Aristi, irakurzaletasuna eta euskal kultura bul-tzatzen sortutako idazleak eskolan ekimenaren barruan.



Gazte Asanbladaren hilabete osorako proposamenak

Gazte Asanbladak martxa berriari ekin dio, eta horri heltzeko aurrerantzean hilabeteroko ekintzen kartela aterako dutela jakinarazi dute. Dagoeneko prest dute martxoko kartela, eta berrikuntzak dakarzi: *Argia* astekariarekin elkarlanean euskarazko pelikulak eta dokumentalak eskainiko dituzte hilean behin *Argia emanaldietan*. Barixakuetan, berriz, Gaztetxea zabalik egongo da 20:00etatik aurrera, eta apirilean futbolin txapelketa egingo dutela ere aurreratu dute martxoko kartelean. Berrikuntzak urteroko ekintzekin uztartzen ahalegindu dira Gazte Asanbladakoak, garai honetan urtero antolatu ohi duten sagardotegira irteerak ere badu-eta bere tokia.



Murrizketen aroa da. Alor publikoan murrizketa handiak iragarri dituzte administrazioek, krisia dela eta ez dela.

Aginpiderik bazenu, zer diru murrizketa egingo zenuke?



Mari Carmen Gonzalez
64 urte

Goi kargudunen soldatak murriztu-ko nituzke lehenengo eta behin, gehien irabazten duten horien soldatak. Osa-sungintza behintzat laga dezatela dagoen moduan. Gutxien irabazten dugunoi kentzen digute beti, eta hori ez da bidezkoa, lehen ere nahikoa lan izaten dugulako hil bukaerara iristen.



Pello Mendizabal
53 urte

Armadari ematen zaion dirua kenduko nuke eta baita erregeari ematen zaiona ere, ez dugulako erregerik behar. Polizia ordaintzeko dirua minimo-ramango nuke, eta bankuei eman zaien diruaren kontrol zorrotza egingo nuke, diru asko jaso dutelako eta inork ez dakielako zer egin duten.



Mikel Rumayor
20 urte

Asko irabazten dutenei kenduko nieke nik. Eta iruditzen zait ez dagoela zeintzuk diren esan beharrik, ondo baino hobeto dakigulako denok ere zeintzuk diren. Horiei kendu eta behar handiagoa dutenei lagunduko nieke nik. Adibidez, etxerik gabe dauden guztiei.



Natasha Bodnarchuk
30 urte

Gobernuko presidentea banintz etorkinentzako diru laguntzak murriztu-ko nituzke lehenengo eta behin. Ni ere atzerritarra naiz, baina ez dut laguntzarik jasotzen. Iruditzen zait ezer egin gabe bizi direla asko hemen, eta diru asko aurreztu daitekeela hortik. Lana bilatzen saiatu behar dira horiek.

SEMAFOROIA



Argiztapen txarra Lerun kalean: "Melitongo zubitik Nettorako Lerun kalean farolak egon badaude, baina ez dituzte pizten. Eskertuko genuke inguru horretan argiak piztea. Eskerrik asko".




Mila esker inauteriak antolatzen lagundu diguzuenoi:

"Eskerrik asko Cometel enpresari, inauterietarako kamioia uzteagatik. Era berean, eskerrak eman nahi dizkiegu inauteriak prestatzen laguntza berezia eskaini diguten bi pertsona horiei. Mila esker. Karnabalerak".



Kalamua guraso taldeak eskerrak eman nahi dizkie alderdi politikoei: "Herri Eskolako Kalamua Guraso Elkarteak eskerrak eman nahi dizkie udal talde politiko guztiei, gurekin izan duten jarrera eta egin diguten harrerarengatik. Guztion artean Euskal Eskola Publikoa hobetzen lagundu digutelako, gure eskerrik beroenak, beraz, EAJ-PNV, BILDU, PSE eta PP-ko ordezkariak".



Erretratu zaharra**1958**

Aste honetako argazkia Gloria Canalesek ekarri du BARRENEKO erredakziora. 1958-1959 inguruko argazkia da, eta Sallobenteko errekan aterata dago. Gazte koadrila honek bazeukan Sallobentera jolastera joateko ohitura, eta pozik ageri dira hankak uretan freskatzen. Makila eskuan hartuta, amuarrairak harrapatzen ibiltzen ziren askotan. Gogora ditzagun zeintzuk diren gaztetxo horiek. Ezkerretik eskumara: Jose Mari Larrañaga, Javier Mujika, Julian Mujika, Agustin Canales eta Luis Mari Zabaleta.



Txandakako IMH Ingeniaritza Eskolan
GRADU BERRIA:
“Prozesu eta Produktu Berrikuntzaren Ingeniaritza”
 (egiaztapenaren zain)

Lanbide heziketa industrialia ikasi ondoren egiteko aproposa: ikasi eta lan, zure txanda!



ATE IREKIAK: Martxoak 10, 11:00etan (deitu aurretik)

IMH - Azkue auzoa, 1 - 20870 Elgoibar - Tfnoa. 943 74 41 32 imh@imh.es - www.imh.es

NAHIDON?

Itziar Mujika eta Jennifer Puertas

Kontsultan zenbatutako kasu kopuruak larrituta, *Gernu isuriak eta infekzioak* izenburuko hitzaldia eskaini zuen joan zen eguaztenean Itziar Mujika Mendaroko anbulategiko erizainak, Jennifer Puertas Elgoibarko osasun zentroko emaginak lagunduta. Arazoaren larriaz ohartarazi zuten, eta zoru pelbikoa indartzeko hainbat aholku eman zituzten. Hitzaldia eta gero, Mujikarekin bildu da **BARREN**, argibide gehiago jasotzeko.

Ainara Argoitia

“Nahi gabe txizak irtetzea, tanta bat izanda ere, ez da inondik inora normala”

Zerk bultzatu zaitu hitzaldi hau ematera?

Azaroan egin nuen ikastaro baten ostean hasi nintzen gai honi bueltaka. Orduan jabetu nintzen kontsultatik bideratzen genituen hamar analisitik bat gernu analisia izaten zela, eta normalean infekzio bati lotutakoa, gainera. Horrek zer pentsatua eman zidan. Galdera bat egin nien guztiei: ahalegin bat egitean txiza tantaren batek ihes egiten dizu nahi gabe? Eta baietz erantzun zuten guztiek. Arazo hori zutenen adina ikusita, larritu ere egin nintzen, izan ere asko eta asko 30-40 urte bitartekoak ziren. Gernu inkontinentzia duten lau lagunetik hiru emakumezkoak dira, baina bada gehiago ere. Inkontinentzia hori ahalegin baten ondoriozkoa denean, hiru kasutik bat emakume gazteetan gertatzen da, eta hori benetan larria da.

Antibiotikoak errezetatzen dituzte gaur egun infekzioaren kontra. Gernu infekzioa saihesteko modua badagoela diozu zuk, baina. Zelan?

Infekzio kasuetan, zoriarekin Coli bakterioa hori agertzen denean, sendagileek antibiotikoak errezetatzen dituzte, bai, baina nik argi utzi nahi dut badagoela infekzio hori saihesteko modua. Izan ere, antibiotikoa hartu duen emakumeak ziurrenik aldi batez ez du infekzio gehiagorik izango, baina agertuko da beriz ere delako Coli hori, eta andre horrek gero eta sarriago hartu beharko ditu antibiotikoak, eta denborarekin, erresistente bihurtuko da botika horrekiko. Antibiotikoa ez da epe luzearako irtenbidea.

Itziar Mujika erizaina eta Jennifer Puertas emagina.

“Gogoia dagoen beste alditan joan behar da komunera, eustea oso txarra delako”



Inkontinentzia kasu askoren atzean gernu infekzioa dagoela aipatu duzu hitzaldian. Zer harreman dute?

Hori frogatu gabe dago oraindik, baina hori hala dela pentsatzera bultzatzen gaituzten zantzuak hor daude, eta nik pentsatzen dut gehiago ikertu ahala garbi geldituko dela bien arteko lotura. Zoru pelbikoko muskuluak ahultzearen ondorioa da inkontinentzia, eta muskulu horiek ahultzen direnean, berez erabat itxita egon beharko lirakekeen zulotxoak (dela gernu irekigunea zein bagina nahiz uzkia bera) zabalik gelditzen dira, eta gorputzeko baldintzak aldatu egiten dira. Kontuan izan behar dugu txizean hainbat germen eta bestelako kanporatzen ditugula, eta zulotxo hori irekita gelditzen bada, horiek guztiak nahierara ibiliko direla, Coli bakterioaren bizi-baldintzak erraztuz.

Noiz hasi behar da larritzen?

Guk nahi ez dugula txizak ihes egiten digunean. Berdin dio kopuruak, nahi gabe txizak ihes egitea, tanta bakar bat izanda ere, ez da inondik inora normala. Hiru inkontinentzia mota daude: esfortzuzkoa da bat. Estula egitean, barre algara egitean, dantza egitean... irtetzen da. Urgentziazkoan bat-batean etortzen da txizagura eta segituan komunera joan behar duzula sentitzen duzu; ezin diozue eutsi. Hirugarren mota mistoa da; biak batera gertatzen dira: gerta daiteke katarro gogor bat hartuta txiza eskapatzen hastea. Edonola ere, denak dira alarma piztekoak. Txizak ihes egitea, edozein kasutan izanda ere, ez da normala. Zoru pelbikoa %100ean ez dugun erakusle da hori, eta hori barneratu behar dugu. Concha Velascok egiten dituen iragarkiak probokazio hutsa dira. Konponbidea ez da konpresa jartzea.

Zelan eragiten dio horrek emakumeari?

Inkontinentziak asko mugatzen du gaixoaren eguneroko bizitza. Txizak ihes egiteko beldurrez biziko da, eta horrek autoestima arazo larriak sortzen dizkie asko eta askori.

Infekzio kasuak eta inkontinentzia arazoak asko ugaritu direla diozu. Elikadurak eta gure egunerokoak badute eraginik horretan?

Bai, jakina. Presaka bizi gara, eta hori txarra da. Askotan txiza egiteko astirik ere ez dugu hartzen, eta hori benetan larria da. Gogoia dagoen beste alditan joan behar da komunera, eustea txarra delako. Txizagurea eustean, zoru pelbikoko atetxo horiek sekulako ahalegina egin behar izaten dute presio guzti horri eusteko; izan ere, kontuan hartu behar dugu grabitate indarra ere handia dela eta indar hori egitean muskuluak ahuldu egiten direla. Umetatik hezi behar ditugu gure haurrak. Zoru pelbikoa ahalik eta gutxien kaltetzeko hartu beharreko neurriak hartzen erakutsi beharko genieke. Jatekoarekin ere berdina gertatzen

da. Presaka ibili behar izate horrek beti eskura daukaguna jatera bultzatzen gaitu, eta ahaztu egiten zaigu elikadura osasuntsua zein garrantzitsua den. Fruta eta berdura gehiago jan behar dugu, eta likido asko edan. Emakumeei, berriz, gauza bat esango nieke: har dezatela denbora euren burua zaintzeko, beti besteak zaintzen ibili ordez.

Kegel izeneko ariketak aipatu dituzue hitzaldian, baina gomendio bat eman beharko bazenu zer esango zenuke?

Esfortzu bat egiteko orduan kontziente izan behar garela zoru pelbikoa kaltetu daitekeela, eta beraz, pisua hartu aurretik, organo guzti horiei gorantz tira egiteko aholkatuko nuke. Zuzen ibiltzea eta higiene posturala deitzen dugun hori zaintzea ere oso garrantzitsua da, eta baita egunean ordubetez ibiltzea ere. Gure burua zaintzeko denbora hartu behar dugu. Kanpo irudiari bezainbeste begiratu behar zaio barruari. Prest egoten gara astean hiru aldiz gimnasia joateko, gerrialdian pilatu zaigun grasa kentzeko edo besondoak gogortzeko, baina biak landu behar ditugu: kanpoko eta barruko. Batzuetan gertatzen da, gainera, kanpoko ondo egoteko barrukoa izorratzen dugula. Adibidez, tenistak. Tenista profesional gehienek inkontinentzia arazo larriak dituzte. Gaur egun, modan dago footing egitea, baina hori egin nahi badugu jakin behar dugu ariketa hipopresibo gehiago egin beharko ditugula, beheko alde hori indartzeko.

Gero eta gazteagoi erasaten dien arazoa da hau, baina zein gauza bixia: hitzaldira azaldu direnen batezbesteko adina 50 urtetik gorakoa zen.

Bai, baina horrek ez nau larritzen. Gazteagoak ohituago daude gai hauen inguruan hitz egitera, eta joera handiagoa dute emaginarengana joateko. Adinean aurrera doazen emakumeen artean, baina, gai hau tabua da oraindik, eta erdi galduta daude. Askok uste dute ginekologoarengana arazo larriak direnean bakarrik joan behar direla, eta euren ez dute larritzat. Zoru pelbikoa gorputzeko beste atal bat dela onartu behar dugu, eta hori indartzeko zer egin behar dugun ikasi. Hasi gara arazo honi buruz hitz egiten, eta lehenengo pausua hori da. Iruditzen zait beste edozein gauzatarako klaseak dauden modu berean, zoru pelbikoa indartzeko ikastaroak ere egon beharko lirakekeela.

Zerbait gehitu nahiko zenuke?

Pausoak ematen ari garela eta Mendaroko ospitalean fisioterapia zerbitzu bat ere jarri dutela, inkontinentzia arazoak dituztenei laguntzeko. Hara joateko, hala ere, behar-beharrezkoa da ginekologoaren agiria. Edonola ere, zerbitzu hori hor daukagu eta hori jakitea oso garrantzitsua da, jakin behar dugulako honek baduela konponbidea.

Zer da zoru pelbikoa?

Pelbisaren azpiko aldean ditugun muskulu guztien multzoa da zoru pelbikoa. Bi funtzio dauzka: esfinterria ixten du; uretra, bagina eta uzkia ixten ditu, eta horrekin batera eutsi ere egiten ditu puxika, umetokia eta ondestea. Oso garrantzitsua da muskulu horiek ondo edukitzea, bestela inkontinentzia arazoak izaten dira, eta prolapsioa ere agertu daiteke (puxika jaustea). Emakumeen bizitzako etapetan ahultzen joaten da, eta bereziki haurdunaldiaren ondoren eta menopausian gertatzen dira aldaketa handienak. Erditzerakoan, muskulatura hori zabaldu egiten da umea irteko, eta gero errekuperatu egin behar izaten da. Menopausian, berriz, hormona aldaketa asko ematen dira, eta muskulu horiek guztiak ahuldu egiten dira. Kegel ariketak, bagina zabaldu eta ixteko ariketa, gimnasia abdominal hipopresiboa... egin daitezke zoru pelbikoko giharreak gogortzeko.

goiuri urain 13 urte

Pozik bizi zara, Goiuri?

Bai.

Zergatik?

Lagunak ditudalako eta badakidalako ez nagoela bakarrik.

Hobetzekorik bai?

Beno, gustatuko litzaidake eskolako azterketak errazagoak izatea.

**Eta zer egingo zenuke bat-batean esango balizute astebete jai daukazu-
la?**

Jai bat egingo nuke, eta uda balitz egunero igerilekura joango nintzate-
ke. Eta lagunekin ibiliko nintzateke edo oporretara joango nintzateke
kanpora.

Oporretara nora joango zinateke?

Hondartza eta igerilekuak dauden leku batera. Eta eguraldi ona egiten
duen lekura.

Institututik irtetzean, zer egiten duzu?

Martitzen eta eguenetan baleta egiten dut, eta gainerako egunak libre ditut.

Eta denbora libre horretan zer gustatzen zaizu egitea?

Tuentian lagunekin berriketan jardutea.

Baleta egiten duzu orduan; noiz hasi zinen baleta egiten?

Umetan.

**Eta inoiz imajinatu duzu zure burua nagusitan ere baleta egiten, modu pro-
fesionalagoan?**

Ez, baina gertatu daiteke eta ez legoke gaizki.

Zer egingo zenuke herriko alkate bazina?

Merkataritza zentru bat eraikiko nuke Elgoibarren, eta igerilekuko sarrera
doan jarriko nuke.

**Kalean bat-batean diru pila bat topatuz gero, zer egingo zenuke? Topatu-
tako lekuan laga ala patrikara sartu?**

Norbaiti erori zaiola ikusiz gero, horri eman egingo nioke, baina inguruan
jaberik egon ezean niretzat hartuko nuke.

Nola imajinatzen duzu zure burua hemendik hamar urtera?

Unibertsitateko karrera bat egiten ikusten dut nire burua. Ez dakit ondo
zertan... Zuzenbidea ikasiko nuke, baina ez dakit seguru.



Irteera

Elgoibar Ikastolak 50 urte eta 50 mendi

50. urteurrenaren ospakizun-
nen artean, *50 urte, 50 mendi*
ekimena jarri du martxan Elgoi-
bar Ikastolak. Urte osoan zehar,
ikastola 50 menditara igotzea
da helburua, eta joan den do-
mekan ekin zioten zeregin horri.
Erlora igo ziren guraso eta ume
ugari.



Zergatik eguzkia ez da irteten gauean?

Aitana Muñoz

6 urte

Ba ilargiak ere irten beharra daukalako eta biak batera ezin direlako irten, bestela ostadarra egiten dutelako.

Orduan gauetan ilargia bakarrik irteten da, eta eguzkia zeruan geratzen da, ezkutatuta.



Ruben Barriga

6 urte

Lainoetan ezkutatzen delako ez da irtetzen gauean. Ezkutatu egiten da, baina ez da ezkutaketan jolasean dabilelako. Eta egunen batean lainorik ez badago, korrika joaten da bere etxera, baina nik ez dakit non dagoen bere etxea.



Iker Izagirre

6 urte

Ilargia egoten delako. Eta eguzkia ezkutatu egiten da eta orduan guk ez dugu ikusten. Ez dakit non ezkutatzen den, baina akaso mendien atzean gordeko da ilargia irteten denean, beste denok ikusi ez dezagun.



Paula Vieira

6 urte

Gaua iristen denean zerura joaten da eguzkia, eta han dagoen zulo batean sartzen da, ur azpian. Eta ilargiak ere berdina egiten du, baina beste zulo batetatik, bakoitzak bere zuloa daukalako.



Iban Migales

6 urte

Igual joaten da Lurraren beste aldera. Lurrak buelta egiten duelako eta orduan eguzkia beste aldean egoten da eta orduan beste aldekoak daukate eguzkia eta Elgoibarrera etortzen da ilargia.



Xabi Alonso

6 urte

Lo egin behar dugulako bai guk eta baita eguzkiak ere. Eguzkia baldin badago ezin dugulako lo egin. Eta ez dakit seguru, baina nik ustedut mendi baten atzean ezkutatzen dela eguzkia lo egiteko.



Udaberriaren etorrera ospatu zuten Mendaron Motxaila Eguneko jaira batu zirenek

Sasikopotzu ohiturari jarraituz, Aizbeltz kobazuloan hasi zuten eguna, umore giroan

Uteroko usadioari jarraituz, Aizbeltz kobazuloan hasi zuten eguna Motxaila Eguneko ospakizunetara bildu ziren lagunek. Musika eta poesia emanaldiak egin zituzten han, eta ondoren, Aitz-Beltz tabernan batu ziren guztiak, bazkaltzeko. 28 lagun elkartu ziren bazkaritan, baina bazkalostean jende gehiago batu zitzairen. Izan ere, egitarau oparoa zuten antolatuta. Kantore flamenkoaren emanaldiak, Jokin Uranga, Iñaki Gurrutxaga, Iñigo Iza-girre eta Aitzol Urain bertsolarien saioak eta Inozentzio pailazoaren



ikuskizunak umorez bete zuten zapatu arratsaldea Mendaron, Aitz-Beltz tabernan ateratako argazkian ikus daitekeen bezala. Sasikopotzu ohitura gogoratzen dute Motxaila Egunean mendarotarrek. Udaberriaren etorrera ospatzeko modu bat zen sasikopotzu, eta mendian ogitartekoa janez eta dantza eginez igarotzen zuten gure arbasoek. Iragan hori gogoratzen dute urtero Motxaila Egunez, kultur aniztasuna eta naturaren defentsa oinarri hartuta.

Aingeru Guardakoaren omenez, Arnoateko Igoera, herri kirolak eta bertso saioa izango dira asteburuan



Aingeru Guardako jaiak ospatuko dituzte Mendaron asteburuan. Arbola sartzearekin hasi zituzten jaiak, eta atzo, Aingeru Guardako egunez, bi meza izan ziren. Nolanahi ere, jaietako egitarauko bi ekintza nagusiak asteburuan izango dira. Bihar, esate baterako, Arnoateko Igoera jokatu da. Plaza auzotik irtengo dira korrikalariak, 11:30ean, eta 4,5 kilometroko ibilbidean neurtu beharko dituzte indarrak. Izenemateak bihar egin behar dira, irteera puntuan bertan, proba hasi baino orduerdi aurretik. Etzi, berriz, bertso bazkaria izango da Aizpe gastronomia elkartearekin, Andoni Egaña eta Sebastian Lizasorekin. Aurrez, baina, meza nagusia izango da Aingeru Guardako ermitan, 12:00etan, eta ondoren, trikitalariez eta herri kirolez gozatzeko aukera izango da han bertan.

'Kontxesi detektibea elurretan' antzezlan, gaur, ostirala, Mendaron

Debako Goaz antzerki taldeak *Kontxesi detektibea elurretan* euskarazko antzezlan eskainiko du gaur gauean Mendaroko San Agustin kultur gunean. Bere ibilbideko 40. obra du honako hau Goaz antzerki taldeak, eta iaz estreinatu zuen, 25. urtemugaren harira. 22:00etan hasiko da saioa, eta sarrerak hiru euro balio ditu.

Jai batzordea osatzeko bilera antolatu du Mendaroko Udalak

Herriko jaiak antolatzeko proposamenak jaso nahi ditu Mendaroko Udalak, eta horretarako, jai batzorde bat osatzea erabaki du. Martxoaren 6an (asteartea) egingo dute jai batzordea osatzeko lehenengo bilera, Azpilgoetako kultur etxean, 20:30ean. Deialdi irekia da.

Dantza ikastaroa eta emakume mendizaleen taldeari buruzko erakusketa antolatu ditu Haizeak Martxoaren 8aren harira

Gaur zabalduko dute mendiko argazkien erakusketa Elgoibarko Kultur Etxean

Emakumeen Nazioarteko Egunaren harira, Elgoibarko Emakume Mendizaleen Taldearen gaineko argazki erakusketa eta munduko dantzen inguruko egun bateko ikastaroa antolatu ditu Haizea taldeak, besteak beste. Gaur zabalduko dute erakusketa. Elgoibarko Emakume Mendizaleen Taldea 1986. urtean sortu zenetik gaur arte egindako irteeretako argazkiak bildu dituzte erakusketan, eta Toubcal eta Kilimanjaro mendietara egindako bidaietako bideoa ikus-teko aukera ere izango da. Erakusketa hilaren 10era arte egongo da zabalik, arratsalde, 18:30etik 20:30era, Elgoibarko Kultur Etxean.

Horren harira, hilaren 6an, martitzenean, Marimendi taldekoek Andeetara egindako bidaiaren bateko ikusentzuzkoa eskai-



niko dute Kultur Etxeko erakusketa gelan, 20:00etan.

Dantza ikastaroa

Martxoaren 10ean, berriz, Europa ekialdeko tribuen dantzei buruzko ikastaroa eskainiko du Idoia Lekuek, Kultur

Etxean, 10:00etatik 14:00etara, eta ondorenerako, bazkaria antolatu dute. Sigma jatetxean izango da bazkaria, eta interesatuek Pitxintxun eman behar dute izena. Haizeako bazkide direnek 26 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, 29 euro.

Andrea Arregik irabazi du Beasaingo Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketa, nesketan



Asteburuan jokatu zen Beasaingo Aurreku eta Soinu Zahar Txapelketan izan dira Elgoibarko Inazio Bereziartua Musika eta Dantza Eskolako dantzariak, eta emaitza onak lortu zituzten. Guztira, 11-15 urte bitarteko hamalau mutil eta hogeita bat neska aritu ziren, eta Elgoibartik sei lagun joan ziren, bi mutil eta lau neska. Hona hemen gure ordezkarien sailkapena: Andrea Arregi (1.), Alaitz Egaña (3.), Leire Astigarraga (6.), Maialen Loiola (7.), Eneko Gonzalez (5.), eta Julen Guillo (7.). Bihar Ibarako kiroldegian lehiatuko dira gure ordezkariak, 16:30ean.

Anaiarrebak eta AZDZ taldeen kontzertua, Gaztetxean

Anaiarrebak eta AZDZ taldeek kontzertua eskainiko dute zapatuan Gaztetxean. Zazpiki kultur elkarteak antolatu du, eta 23:00etan hasiko da lehenengo taldearen emanaldia. Sarrerak bost eurotan jarriko dituzte salgai. Zazpiki kultur elkarteak Zazpiki Irrati libretik sortutako elkarteak da, eta irratiak berak emititzeari laga bazion ere, kultur elkarteak bizi-bizi jarraitzen du.

Interneteko ikastaroa, hilaren 5ean hasita

Interneteko oinarriko ikastaroa antolatu dute Elgoibarko Kzgunean. Goiz eta arratsalde izango da ikastaroa, hilaren 5ean hasi eta hilaren 16ra arte. Goizez, 9:00etatik 11:00etara, eta, arratsalde, 16:00etatik 18:00etara. Argibide gehiagotarako 943 257 991 telefono zenbakira deitu dezakezue.

ALBERTO FERNANDEZ

Mendizalea

Espainiako Mendiko Kirol eta Eskalada Federazioak Espainiako mendi taldea osatzeko aukeratu du Alberto Fernandez, eta mendizale elgoibartarra hiru urtez ariko da Mikel Zabalza mendigoizaleak zuzentzen duen muti-len mendiko taldean.

“Orain arte ezagututako lekuen artean Pirinioak ditut gustukoen”

Espainiako Mendi Federazioko taldeko kide izateko hautatu zaituzte. Nola hartu zenuen albistea?

Hasieran, Espainiako federazioa zenez, zalantzan egon nintzen zer egin. Baina zuzendaria Mikel Zabalza nafarra izango denez, eta, gainera, beste bi euskaldunekin egongo naizenez taldean, animatu egin nintzen. Bidaiatzeko, jendea ezagutzeko eta ondo pasatzeko aukera ona da.

Zein proba egin dituzu talde horretan sartzeko?

Lehendabizi nire kirol curriculuma aurkeztu behar izan nuen, eta ondoren, eskalada eta erresistentzi proba batzuk egin genituen. Aurkeztutako guztietatik zazpi aukeratu gaituzte: hiru euskal herritar, bi kataluniar, aragoar bat eta Extremadurako beste bat. Nagusienak 30 urte ditu, eta oso motibatuta gaude guztiok. Mikel Zabalza zuzendaria ez dut gehiegi ezagutzen, baina bere ibilbidea ikusita, ikusten da esperientzia handiko alpinista dela.

Aurten hainbat irteera egingo dituzu mendi taldearekin.

Astebeteko bost irteera izango dira. Martxoan Gavarnira joango gara, izotzetan eskalatzera; apirilean Kataluniara, haitzean eskalatzera eta osasun azterketak egitera, ekainean Alpeetara, abuztuan Europako Mendietara, eta azaroan Madril aldera. Beste urte batzuetan kanpora joan izan dira, baina aurten diru gutxi dagoenez, ez gara urrutira joango. Hala ere, eskalatzeko eta ondo pasatzeko ez dago oso urrutira joan beharrik!

Orain arte ibilitako lekuetatik, zein izan da gehien gustatu zaizuna?

Ez naiz leku askotan ibili. Alpeetan, Marokon, Pirinioetan eta Europako Mendietan ibili izan naiz, eta orain arte ezagututako lekuen artean Pirinioak ditut gustukoen. Egun batean izotzetan es-



kalatzeko aukera daukazu han, eta kotxez ordu bete eginda, haitzean eskalatzeko egon zaitezke.

Izotzean ala harkaitzean eskalatzeko gustatzen zaizu gehiago?

Ezberdinak dira; sentsazio ezberdinak dira, baina bat aukeratzeko mistoa aukeratzeko nuke; hau da, piolet eta kranpoiekin izotzetan eta neguan haitzean eskalatzeko. Negua gogorra da, hotzak jan egiten zaituelako, baina motibatuta zaudenean ez dituzu alde txarrak ikusten. Hemen, gainera, negua urteko hilabete gutxi batzutan bakarrik izaten dugunez, gogo handiz hartzen dut.

Rokodromo ala harkaitza?

Harkaitza, dudarik gabe! Rokodromoak entrenatzeko eta, batzuetan, lesionatzeko bakarrik balio du.

Noiz eta nola hasi zinen eskalatzeko?

Umetatik gurasoekin ibili izan naiz mendian, eta azkenean eboluzio logiko bat jarraituz, eskalatzeko hasi nintzen, 16 bat urterekin. Mendian betidanik ibili eta gero, gauza desberdinak probatzea nahi izaten duzu, behetik ikusitako paretetatik gora igotzea, esate baterako.

Mendiari lotuta, zeresan handia eman du erreskateak ordaintzearen gaiak. Zuri zer iruditzen zaizu?

Gaizki iruditzen zait mendi erreskateak ordaindu behar izatea. Zergatik ordaindu behar dugu guk erreskatea eta kotxean istripu bat eduki duenak ez?

Miresten duzun mendizalaren bat?

Dakidan guztia irakatsi didatenak: gurasoak, arreba, I.E. eta lagunak, nirekiko duten pazientziagatik. Ez da erraza ni bezalako tipo bat aguantatzea!

Mendizale eta eskalatzaileraren heinean, zein da zure ametsa?

Orain arte bezala lagunekin gozaten eta barre egiten jarraitzea.

Udaberri Txapelketako finalerdietarako sailkatu dira Mancebo eta Etxeberria

Taldekako ligaxkan lehen postuan daude

Eulogio Mancebo eta Andoni Etxeberria 2. Mailako Palako Gipuzkoako Udaberri txapelketako finalerdietarako sailkatu dira, bost partida irabazi eta bakarra galdu ostean. Laz ere fin aritu ziren lehiaketa honean, eta finaleraino ailegatzea lortu zuten, azken partidari galdu egin bazuten ere. Aurten, beraz, txapela janzteko bigarren aukera izango dute Lagunak taldeko ordezkariak. Era berean, taldekako ligaxkan lehen postuan daude elgoibartarrak.



Kirol Campusa antolatu du Patronatuak Aste Santurako

Kirol Patronatuak Kirol Campusa antolatu du Aste Santurako, eta 1999tik 2005. urtera bitartean jaiotako umeek parte hartu ahal izango dute. Egun horietan hainbat kirol praktikatzeko aukera izango dute umeek Mintxetan eta Olaizaga kiroldegian. Patronatuko bazkideek 49 euro ordaindu beharko dituzte, eta gainerakoek, 54 euro. Interesatuak kiroldegian bertan eman dezakete izena, martxoaren 23a baino lehen.

Walking kirola probatzeko bi saio egingo dituzte doan

Walking kirola probatzeko doako bi saio prestatu ditu Patronatuak. Hilaren 8an izango dira saioak; lehenengoa, 18:00etan, eta, bigarrena, 18:30ean. Interesatuak Mintxetako Herreran eman beharko dute izena, 15:00etatik aurrera. Une honetan walking ikastaroko lau talde daude martxan, eta Patronatuak bosgarrena osatzeko asmoa dauka (Ostegunetan izango litzateke, 18:00etan).

Elgoibartarrak Zumaiako herri lasterketan

Joan zen zapatuan jokatu zen Zumaiako herri lasterketa, eta Elgoibartik ere hainbat korrikalarik hartu zuten parte. Jarraian dituzue haiek egindako denborak:



29. Imanol Santos (36:03)
55. Iñigo Salegi (38:01)
101. Javi Fernandez (39:46)
184. Alberto Seijas (43:24)
232. Miguel Angel Montes (45:18)
290. Modesto Cid (48:22)
291. Joseba Igartua (48:22)
308. Iker Amutxastegi (49:01)
16. Pilar Arriola (46:33)
31. Pilar Lama (53:39)

EMAITZAK

FUTBOLA

Laudio 2 – Haundi 1 (3. maila)
Elgoibar 1 – Trintxerpe 4 (Erreg.)
Elgoibar 3 – Mondragon 4 (Ohorezko jub.)
Allerru 1 – Elgoibar 0 (Kad. A)
Elgoibar 2 – Aurrera 1 (Kad. B)
Sansse 2 – Elgoibar 4 (Ohorezko inf.)
Betiona 2 – Elgoibar 3 (Inf. txiki)

PILOTA

Lagunak 22 – Gazteleku 21 (1. mailako nag.)
Lagunak 14 – Azkoitia 22 (1. mailako nag.)
Antiguo 4 – Lagunak 22 (Jub.)
Ategorrieta 4 – Lagunak 25 (Pala)

ARETO FUTBOLA

Concepto Egile Elg. 3 – Alcañiz 4 (2B)
King Kong Elg. 6 – Noto 5 (Jub.)

XAKEA

Mekatar Elg. 2,5 – Hernani 1,5

ESKUBALOA

Alkorta Elg. 34 – Gure Auzune 27 (Sen. mut.)
Tecnifuelle Elg. 35 – IES 21 (Sen. neska.)
Amenabar 17 – Beristain Elg. 21 (Jub. mut.)
Bera Bera 29 – Lauko 39 (Jub. neska.)
Grupo Eibar Elg. 37 – Pulpo 24 (Kad. mut.)
Aiala 28 – IMH Elg. 28 (Kad. neska.)
IMH Elg. 27 – Errotabarri 17 (Kad. neska.)
Pulpo 34 – Astigarraga Elg. 23 (Kad. neska.)
Bankoa Elg. 17 – Ereintza A 30 (Inf. mut.)
Bera Bera Egia 5 – Ikus Elg. 25 (Inf. neska.)
Ereintza B 10 – Aterpe Elg. 14 (Inf. neska.)

AGENDA

FUTBOLA (Mintxetan)

Zapatua, 3

13:00 Elgoibar – Ilintxa (Kad. A)
16:30 Haundi – Baskonia (3. maila)
18:45 Elgoibar – Amara Berri (Neskak)

Domeka, 4

12:00 Elgoibar – Antiguoko (Ohorezko inf.)

ESKUBALOA (Kiroldegian)

Zapatua, 3

10:00 Ikus Elg. – Aiala (Inf. neska.)
11:15 Txarriduna Elg. – Amenabar (Inf. mut.)
12:30 Astigarraga Elg. – Legazpi (Kad. neska.)
17:00 IMH Elg. – Kukullaga (Kad. neska.)

Domeka, 4

9:45 Sanlo Elg. – Aloña Mendi (Aleb. mut.)
11:00 Sanlo A Elg. – Aloña Mendi A (Aleb. neska.)
12:15 Sanlo B Elg. – Aloña Mendi B (Aleb. neska.)

PILOTA

Barixakua, 2

21:30 Lagunak – Gazteleku (2. mailako kad.)

LANA

ESKAERA

- Emakumeak pertsona nagusiak zainduko lituzke gauetan. ☎ **680 303 052**
- Gizonezkoa lanerako prest. Baserri lanetan eta nagusiak zaintzen esperientzia daukat. ☎ **649 122 603**
- Emakumea lan bila. Interna edo orduka ere egingo nuke lan. ☎ **652 446 228**
- Emakumea interna edo externa lan egiteko prest. ☎ **626 052 165**
- Emakumea orduka lan egiteko prest, garbiketa lanak edo pertsona nagusiak zainduz. ☎ **690 134 485**
- Emakumea interna edo orduka lan egiteko prest. ☎ **650 152 866**
- Gizonezkoa edozein lan egiteko prest. Esperientzia ekoizpen textilean, eraikuntzako peoi lanetan, garbiketa lanetan, zerbitzari lanetan eta banaketa lanetan. ☎ **689 286 167**
- Emakumea umeak edo pertsona helduak zaintzeko prest. Interna edo orduka lan egiteko prest. ☎ **685 212 060**
- Emakumea egunez lan egiteko prest, edozein mota-tako lanetan. ☎ **685 212 060**
- Gizonezkoa baserri lanetan, abereak zaintzen edo eraikuntza lanetan aritzeko prest. ☎ **685 212 060**
- Emakumeak pertsona nagusiak zainduko lituzke, interna edo orduka. ☎ **649 044 223 / 943 257 217**
- Emakumea pertsona nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka eta astebukaerak ere. ☎ **689 632 922**
- Gizonezkoa edozein lan egiteko prest. Paperak ditut eta kotxeko baimena. ☎ **632 798 768**
- Nagusiak zainduko nituzke. Euskalduna naiz. Urte askotako esperientzia daukat. ☎ **685 729 790**
- Emakumea lanerako prest. Nagusiak zein umeak zainduz, interna edo orduka. Erizaintza ikasketak daukat. Garbitzaile eta sukaldari lanak egiteko ere prest. ☎ **669 010 359**

- Emakumeak pertsona nagusiak edo umeak zainduko lituzke. Garbiketa lanak ere egiteko prest. ☎ **648 603 029**
- Adinekoak edo umeak zainduz lan egingo nuke. Jornada erdiz edo orduka. Gaixoekin gaua pasatzeko ere prest, asteburuetan ere bai. ☎ **618 052 967**
- Ingeles klase partikularrak ematen ditut, etxex etxe. ☎ **943 744 062**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko prest. Euskalduna. ☎ **626 490 986**
- Emakumea garbiketa lanak egin edo nagusiak edo gaixoak zaintzeko prest. Asteaz zehar. ☎ **669 311 385 / 683 554 245**
- Ingeleseko klaseak ematen dira. Eskolako laguntza eta titulazio ofizialak lortzeko klaseak. Adin guztiak. ☎ **652 763 264**
- Emakumea nagusiak edo gaixoak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka edo interna. ☎ **638 338 816**
- Emakumea nagusiak zaindu edo garbiketa lanak egiteko prest. Orduka. ☎ **690 925 929**
- LH, DBH eta Batxilergoko klaseak ematen ditut. Talde txikiak. ☎ **696 295 098**
- Emakumea nagusiak edo gaixoak zaintzeko prest, etxean edo ospitalean. Orduka edo interna. ☎ **645 557 191**
- Emakumea lanerako prest, orduka edo interna. ☎ **608 474 923**
- Emakumea lanerako prest. Orduka. Mantenu lanak, nagusiak zaintzen, zerbitzari... ☎ **609 148 861**
- Gizonezkoa zerbitzari lanak egiteko prest. Esperientziaduna. ☎ **692 332 871**

ESKAITZA

- Umea zaintzeko emakume euskalduna behar da. Orduka lan egiteko. ☎ **627 774 543**

ETXEBIZITZAK

ALOKAIRUA

- Emakumeak bi edo hiru logelatako pisua alokatuko luke. ☎ **602 490 595**

- Emakumeak bi edo hiru logelako pisua alokatuko luke Elgoibarren. ☎ **699 813 826**

SALGAI

- Etxebizitza salgai: 3 logela, komuna, egongela, sukaldia, igogailua eta gasa ditu. Pedro Muguruza etorbidea. 150.000 euro. ☎ **648 191 076**

BESTELAKOAK

- Musika eskola eta Trenbide kalea artean umearen aterki laranja galdu dut, Kukuxumuxu markakoa da eta Telmo izena du barruan. Aurkitu duenak mesedez BARREREN utzi dezala edo bestela **943 744 575** telefonora deitu.
- Bigarren eskuko maxi-cosia erosiko genuke. ☎ **635 706 537**
- Zorro gorri batean zegoen mugikorra galdu nuen kar-nabal-zapatuan, San Bartolome kale inguruan. Eskertuko dut. ☎ **690 220 989**
- Garaje itxia alokagai Jausoro plazan, plazatik gertu. ☎ **943 740 146 / 669 022 573**
- Balio sentimental handiko erlojua galdu da, Omega Constellation markakoa. Identifikatzeko: erlojuaren itxidura korrearen gainontzeko ataletatik desberdintzen da. Ordain saria izango du. ☎ **669 960 785**
- Gaztetxerako sukaldeko tresna elektrikoak eta butanozko edo keroxenozko kalefak behar ditugu. Eskerrik asko! ☎ **677 898 633**
- Yamaha YZ 250 2T salgai. 2006. urtekoa baina oso gutxi erabilia eta ondo zaindua. Mendian hasteko aproposa! 1900 euro. ☎ **678 587 867**


KINTOAK

- 1977an jaiotako Kintoen bazkaria martxoaren 24an. 12:30ean elkartuko gara Madalan. Martxoaren 9a baino lehen 50 euro sartu behar dira Kutzako kontuan: 2101 0036 62 0012982112

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira.

- Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **15€** (alokairua) - **20€** (salmenta). Autoak saltzea: **15€**. Bestelakoak: **8€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **6€ gehiago** ordaindu behar dira.

- **BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:** Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: **12€** (alokairua) - **15€** (salmenta). Autoak saltzea: **12€**. Bestelakoak: **6€**. Iragarkiari erretratua jarriz gero, **5€ gehiago** ordaindu behar dira.



MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

PINTURAK
KONPONKETAK
AZARLEKIN KONPONKETA GARBITZEN

Pedro Pérez Berstein
Xilillon Kalea 2 sotoa 3
943 74 36 52 - 639 76 09 19
pinturak@euskaltel.net

FATXADAK ETA KOMUNITATEAK - BERRIZTAKETAK - ETXEO KONPONKETAK



• Zorionak, **Irati**, astelehenean 2 urte beteko dituzulako. Muxu asko familiako guztien, gurasoen eta bereziki Julenen partez.



• Zorionak, **Jone**, 7 urte betetzean. Gurasoen eta ahizparen partez.



• Zorionak, **Hartz**, hilaren 28an urtetxo bat! Muxu potolo bat familiaren partez, bereziki Iraltza, Oihan, Sugar eta Harrieten partez.



• Zorionak, **Junes**, zure bigarren urtebetetzean. Einerrek prest ditu kandelak igandearako. Muxu bat, etxe-koen partez.



• Zorionak, **Pablo!** Egun polit bat igaro dezazula. Muxu bat, gurasoen, amama-aittitten eta lagunen partez.



• Zorionak, **Ander**, astelehenean 6 urte beteko dituzulako. Muxu asko etxe-koen eta bereziki Mikelen partez.



• Zorionak, **Jone**, atzo 8 urte egin zenituelako. Muxu asko etxe-koen partez, eta bereziki, Enekoren partez.




• Zorionak, **Julen Galindo**, asteartean 8 urte bete zenituelako. Muxu handi bat etxe-koen eta bereziki anaia Andoniren partez.



• Zorionak, **Paul**, atzo zure lehenengo urtea bete zenuelako. Muxu handi bat Nagore, Mikel, Nahia eta etxe-koen partez.



• Haunditzen, haunditzen... Zorionak eta txokomarrubizko bi patxo zuretzat, **piratal!**



• Zorionak **etxe-ko printzesari** igandean 5 urte egin dituelako. Zorionak, gurasoen, aitona-amonen, eta bereziki Manexen partez.



• Zorionak, **Ibai**, hilaren 25ean 6 urte egin zenituelako. Muxu handi bat familiako guztien partez.



• Bat, bi, hiru, lau, bost! Martxoaren 7an egin putz kandlei! Zorionak, **maitia**, zure anaiaren eta gurasoen partez.



• Zorionak, **printzesal** Gaur 10 urte betetzen dituzulako. Neska handia egin zara! Muxu asko familiako partez. Maite zaitugu!



• Zorionak, **Markel**, igandean 6 urte beteko dituzulako. Ondo pasa zure egunean, eta muxu bat familiako guztien partez.



• Zorionak, **Victor**, hilaren 27an 3 urte bete zenituelako. Muxu bat! Maite zaitugu!



• ... hasi naiz haunditzen! Askok maite zaitugu! Zorionak, **amabix!**



• Azkenean iritsi da eguna! Zorionak eta ondo pasa zure egunean. Muxu handi baina, lagunen partez.



• Zorionak, **Ana eta Txerra**, zure urtebetetzean, 'Petit Komite'-ren partez.

AGURREN ATALEKO PREZIOAK EGUNERATU EGIN DITUGU
Erretratu bakarreko agurra 4€, argazki bikoitza 6€, hirukoitza 8€.
hiru lagunetik gorako taldeak: 12 €.

ELGOIBARKO IZARRAKO BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK
Erretratu bakarreko agurra 3 €, argazki bikoitza 5€, hirukoitza: 7€.
hiru lagunetik gorako taldeak: 10 €.

Argazkiak **eguzten eguerdia** baino lehen ekarri behar dira **BARRENEKO** bulegora, 12:00ak baino lehen, edo barren@elgoibarkoizarra.com e-postara bidali.

2 barixakua

Kultura

18:30 Erakusketa

Emakume talde bat mendian, 25 urteko historia. Haizeak antolatuta, Kultur Etxean egongo da ikusgai, hilaren 10era arte.

3 zapatua

Musika

23:00 Anaiarrebak eta AZDZ

taldeen kontzertua Gaztetxean, Zazpiki kultur elkarteak antolatuta. Sarrera: 5 euro.

8 eguena

Ipuinak

17:00 'Ipuin ez sexistak'

Ipuin ez sexistak saioa antolatu dute umeentzako. Maider Galarza izango da kontalaria.

Aldarrikapenak

20:00 Elkarretaratzea

Haizeak eta Elgoibarko Emakumeen Asanbladak deituta elkarretaratzea Plaza Handian 'Parekidetasunera bidean... Feminismoa!' lelopean.

9 barixakua

Kultura

20:30 Antzerkia

Como como coco me descoco Como como coco me descoco izango da ikusgai Herriko Antzokian.



Martxoak 5ean,
Wii Party saioa Ludotekan,
17:30etik aurrera



Igandean 16:00etan zabalduko
dugu Gaztelekua,
pantaila handian derby-a ikusteko,
ekarri zure koloreak!

OKINDEGIA

4 domeka IBARRENEA

BOTIKA ORDUTEGIAK

9:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

GUARDIAK

Egunez

9:00 - 22:00

Gauetz

22:00 - 9:00

2	Yudego	Yudego
3	Zabaleta	Etxeberria
	Goizez: Barrenetxea	
4	Zabaleta	Etxeberria
5	Barrenetxea	Barrenetxea
6	Ibañez	Garitaonandia
7	Garitaonandia	Garitaonandia
8	Etxeberria	Etxeberria

Fernandez

Herriko enparantza 4, Garagartza (Mendaro)
Tel: 943 756 142

Ibañez

Rekalde, 1 (Soraluze)
Tel: 943 751 638

Zabaleta

Kalebarren, 9 (Soraluze)
Tel: 943 751 384

ZINEA

«Los descendientes»

2, barixakua: 22:15
3, zapatua: 19:00/22:15
4, domeka: 19:00
5, astelehena: 21:30



«Los descendientes» Zuz.: Alexander Payne. EEBB, 2011. 110 min. Drama, komedia. George Clooney, Judy Grøer, Matthew Lillard, Beau Bridges. Matt King-ek bi alaba ditu. Emazteak istripu bat edukiko du, eta une horretan atzera begira jarriko da Matt, etorkizunari aurre egiteko modu bat bilatzeko. Alabekin harremana berreskuratzen saiatuko da, eta bizitzeko leku berri baten bila hasiko da. Emazteak istripua izan zuenean maitale bat zeukala kontatuko dio alaba nagusiak.

«Cascanueces»

4, domeka: 16:30

«El Havre»

(Ongarri zinekluba)

8, eguena: 21:30

«El Havre» Zuz.: Aki Kaurismäki. Finlandia, Frantzia eta Norvegia, 2011. 93 min. Género: Komedia, drama. André Wilms, Kati Outinen, Jean-Pierre Darrousin, Blondin Miguel. Marcel Marx idazle eta bohemioa El Havre herrian finkatuko da, bota-garbitzaile moduan. Autore ezaguna izateko ametsa baztertu, eta taberna, bere ofizioa eta emaztearen artean biziko da. Une batean, bere bizimodua goitik behera aldatuko da.

Ekarri ezazu zure publizitatea

BARREN astekarira
eta guk banatuko dugu
Elgoibar eta Mendaroko
etxeetan.



**943 744 112 telefonoan
eska ezazu informazioa!**



ZEZEN-BIDE



AUTO ESKOLA

Autorako B agiri teorikoa **18 urte bete baino lehen** eskura dezakezu!

Ordenagailu bidez teoria ikasteko gela berria!



ORDUTEGIA

10:00etatik-12:30era

15:00etatik-20:30era

- Euskarazko eta gaztelarazko klaseak
- Credikutxarekin ordaintzeko erraztasunak

**5 EGUNEKO
TEORIKAKO
IKASTARO
TRINKOAK**

LEKUALDAKETA

San Frantzisko, 52 behea

Tel. 943 742 720

20870 ELGOIBAR



Gremioen

GIDA



Aroztegiak

Asima

Mota guztietako arotz lanak
Ermuaranbide, 18
☎ 687 15 02 26
☎ 650 02 66 31

Biena

Neurrira egindako lana
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea
☎/Faxa: 943 74 31 16
www.biena.es
info@biena.es

Imar

Aroztegia
Olaso 15,55 pabilloia - A1
☎ 943 53 14 71
☎ 609 05 49 78
Era guztietako arotz-lanak

Lodoso Lelhoak

Sigmako industrialdea
Xixilion 2-2. pabilloia - 3. zenb.
☎ 943 74 34 90
Faxa: 943 74 73 12
www.fjlodoso.euskalnet.net

Ulazia

Aroztegia eta enbalajeak
Santa Klara, 10
☎ 943 74 05 47



Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

Ibámar

Bernardo Ezenarro, 2
☎ 943 53 18 47
☎ 647 463 436 (Floren)

Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,
11 behea
☎ 943 25 45 22

Pagoaga

San Antolin, 13
☎ 943 74 02 79

Pagoerrotza

Herriko Enparantza, 10 behea
MENDARO
☎ 943 75 60 44/659 33 43 23

Tellabide

Azpilgoeta, 7 • Mendaro
☎ 943 75 50 62/607 75 50 62

Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17
☎ 943 74 05 30/605 71 49 05
Faxa: 943 53 18 25

Zubizarreta Instalazioak

Ubitarte, 5 behea
☎ 943 74 07 89/650 58 61 44



Elektrizitatea

Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza
Morkaiko, 1
☎ 943 74 12 80

Azpeleta

San Frantzisko, 51
☎ 943 74 12 38

Joseba

Kilimon hiribidea, 1 (2. lokala)
Mendaro
☎ 659 934 964



Pinturak

Blok dekorazioa S.L.

Upalz zaharra, 14 behea
☎ 943 74 15 52
☎ 606 43 11 19-20

Ku Kolorea

Urasandi kalea, 26 behea
☎ 943 74 88 43
☎ 660 52 25 87



Igeltseritza

E. Arandia

Urasandi, 22 behea
☎ 605 70 52 04



Gremioen GIDA